



“Filmak Interneten ikusten ditugu orain, super-zortziarena baino kalitate exkaxagoaz”

Mikel Clemente | Errealizatzaile noranahikoa

Duela hogeit hamar urte hasi zen irudiak eta soinuak nahasten. Telebista saioak errealizatu ditu, dokumental eta film laburrak, baita dozenaka klip ere (Siniestro Total, Extremoduro, Fito y Fitipaldis, Kepa Junkera, Doctor Deseo...).

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Iñigo Azkona

Diskoa bezala, hil al da bideo-klipa ere?

Inoiz baino biziago dago, hedabide berriek ikus-entzunezko pieza laburrak behar baitituzte. Galdu dena diskoetxeen finantziarioa da.

Bideo-klipak errealizatu zenituen gerora milioika ale saldu zituzten kantuekin. Horren arabera ordaindu al zizuten?

Inolaz ere ez. SGAEk dio royaltiak kantuarren egilearengana doazela. Kliparen zuzendaria ere aitortu lezake, baina eskubide-trukaketa konplikatuak dakarrenez sekula ez da egiten. Injustua da.

Zure azken klipak (Loturak, Rafa Rueda) 2.728 bisita jaso ditu You Tube-n!

Garai xeber batetik geroztik, non eta sekulako dirutzak xahutzen ziren ikusleak nekez ikusi ahal izango zituen lanetan... Baina orain bizi dugun garaia are xeberagoa da, Interneti esker doanekoa eta erraza baita edozer ikustea, arazoa da inork ez duela dirurik jartzeko finantziarioa.

Bosgarren hamarkadan sartu direnetik, zer moduz dabilta Siniestro Total-eko adiskideak?

Azken bolada ei da klasikoei begiratzea. Taldearen 25. urteurrenean “bolo” gehiago izan dute aurreko hamabost urteetan baino! Aitortu behar, halere, kamerinoko atea ez dutela irekitzen kontzertua bukatu eta handik ordu erdira arte... Aire gutzia eurentzat behar baitute!

Euskalduna ez den zerbait esatekotan... galiziarren retranca aipatuko nuke.

Guztiz ados. Bestalde, janaria eta edaria berdin maite ditugu, baita sorkuntza munduari “estilo proletario” batez ekitea ere. Horrela orekatzen dira gure izaera desberdinak.

Artisten munduan onarturik dago “norbaite seme” izatea onuragarri dela, kaltegarri baino... Inoiz baliatu al duzu “zarenaren iloba” izatea?

Getxoko jubeniletan jokatzeko nuen eta osaba behin etorri zen ni ikustera. Bigarren baloia alferrik galdu nuenean esan zidan ez nuela bere laguntzarik merezi eta arrazoia osoa zeukan. Halere inoiz egokitu izan zait txiriparen bat, ona ala txarra... jendeak dena nahasten baitu.

Zer da gutxien maite duzuna Pásalo-ko tertuliakide izateaz?

Ezin dut nire burua ikusi.

Alex de la Iglesiaren hasierako filmen (Acción Mutante eta El Día de la Bestia) “Nola egin zen...” dokumentalak zuzendu zenituen, duela hamabost bat urte. Orain gustura ikusiko nuke “Nola egin zen...” bat “Nola egin zen”... haiei buruz!

“Nola egin zen” horiek grabazio diskretuak behar dute izan, horregatik ez dira oso ikusgarri suertatzen. Menturaz gusturago ikusiko zenuke filmetatik kanpo gelditzen diren irudiekin osatutako dokumental bat. Irudi mamitsu asko filmetatik kanpo gelditzen baitira... zuzendariari, produktoreari, prentsa arduradunari edota bertatik pasatzen den norbaiti “desegokiak” iruditzen baldin bazaizkio filmaren promoziorako.

Noizko iragartzen duzu DVDa desagertzea?

Badugu ondorengoa dendetan: Blu-ray. Suposatzen dut bi urte barru –gehienez jota– jaun eta jabe izango dela estreinaldien alorrean. Halere zaila da jakitea noiz arte iraungo duen DVDak. Nola iragarri, ikusi ostean CDak saltzearen oparitu egiten direla DVDak? Sekulako telebista pantailak dauzkagu futbolariak txikituta ikusteko eta filmak Interneten ikusten ditugu super-zortziarena baino kalitate exkaxagoaz. ■